

Miren Bego Urrutia Barandika

Fisiologiako doktorea



*“Harrigarriena da ikustea jakintza
irla baten modukoa dela”*

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Miren Bego Urrutia Barandika (Gernika, 1966) Fisiologiako doktorea da, eta 1998an hasi zen irakasle-lanetan EHU, Biologiako ikasleei Animalien Fisiologiaren arloko ikasgaiak irakasten. Ikertzailera ere bada, eta, iaztik, Ikerketa Gizartera Zabaltzeko Zuzendaritzako arduraduna. Lanez gainezka dabilen arren, berehala eman dio baiezkora elkarrizketa-eskeari. Hala ere, erantzunak ematean aitortu du galderak zailak iruditu zaizkiola; “berezi-ki, labur erantzuteko”. Beste une batean agian beste erantzun batzuk emango zitezkeela ere esan du. Orain, grinaz beteta erantzun die bie ala bie.

Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?

Nire izaeragatik izango da, baina aurkikuntza handiek baino gehiago eragiten dit eguneroko lanak. Ez dut esan nahi komunikabideetan oihartzuna duten lorpen horiek ez nautenik hunkitzen, eta ez dut ukatzen *serendipity*-a izango denik, baina txiripak lanean ari zarela harrapatzen zaitu. Egunerokoan ari zarela, galdera egokiak egiten asmatzeak, hor dago gakoa.

Atzera begira, zirrara sortzen dit zenbat azkartu den zientzia. Izugarri azkartu da prozesua. Duela 30 urte, ni hasi nintzenean, ez zegoen Internetik, oso ordenagailu gutxi genituen, eta posta elektronikoa sekulakoa iruditzen zitzaigun. Zerbait ikertzen hasteko, informazioa biltzeko fasea, oso luzea eta zaila izaten zen; orain ditugun aukerekin, ikaragarri azkartu da hori, eta, hortik aurrera, prozesu osoa. Diziplinartekotasuna ere asko hazi da, eta eragin handia du.

Baina politena, harrigarriena da ikustea jakintza irla baten modukoa dela: galderak erantzun ahala, galdera berriak sortzen dira. Hala, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago zabaltzen da ez dakigunaren eremua; zenbat eta handiagoa irlaren azalera, orduan eta handiagoa perimetroa.

Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke zure ibilbidean?

Erantzun nezakeen minbizia edo sendabiderik ez duten gaitzak sendatzeko gai izatea nahiko nukeela. Nahiko ez dut ba! Bereziki, garunarekin lotutako gaitzak, izaera aldatzen edo galarazten dizuten horiek... Baina lehen ere ikusi dugu asmo handiek ez dituztela erantzun guztiak ematen. Adibidez, Giza Genomaren Proiektua ikaragarritzko lorpena izan zen, baina oraindik ere ezagutzen ez ditugun alderdi asko daude, eta lehen genituen uste batzuk okerrak zirela ikusten ari gara... Brain proiektua ere izugarri interesatzen zait, baina horrekin ere antzekoa gertatuko da, seguru asko.

Hortaz, benetan nahiko nukeena da ikerketa gizartera zabaltzea eta gizartea zientzia-sistemako eragilea bihurtzea; hau da, jendeak eskatzea ikerketa gizartera zabaldu behar dela. Aldi berean, ikertzaileek uler dezatela beren ikerketak komunikatzea ez dela egiten duten lan guztiaz gain egin beharreko beste zerbait, baizik eta lanaren parte dela garden-tasunez komunikatzea. Benetako iraultza ekarriko luke horrek. ●